

## Artisau azoka igandean

■ 25 postu egongo dira Gudarien plazan 11:00-14:30, 6 hernaniarrenak ■ Aurtengo nobedadea eskulan tailerra ■ 'Gabiltza' artisautza elkarteak antolatzen du.



laz giro ona, baina, eguraldi txarra egin zuen artisau azokan.

URTEROKO artisau azoka bihar egingo da: aurtengoa 21garrena. Denera, 26 artisau, 26 lantegi eta produktu ezberdin izango dira igande goizean herriko plazan: gaztain saskiak, itsas korapiloak, lore lehorrak, burdingintza, uzta-riak, alanbrea, larruzko oinetakoak, sareak...

### ARTISAU HERNANIARRAK

Asun Esnal	Bitxigintza
Edu Romero	Larrugintza
Dionisio Usarraga	Sareak
Anastasia Leunda	Artilea
Benigno Albeniz	Uztarriak
Amaia Oihaneder	Keramika

### ESKULAN TAILERRA

Igandekoa ez da begiratze hutsa izango. Ikasi nahi duenak ere aukera izango du: Ani Martinezek eskulan tailerra jarriko du ikusi eta ikasteko. Jateko jeneroa ere izango da: taloak, gazta, erroskilak... sagardoa ere bai. Girotzeko, trikitixa eta dultzaina. □

## Hernanik auzo eta kale izen berriak ditu

■ Osteguneko plenoan onartu ziren ■ EA-EAJ taldeak ezezko botoa eman zuten.

EUSKALTZAINDIAREN arauari jarraituta egin du EH-ko udal taldeak Hernaniko izendegi berria. Lehen zegoenetik bi gauza aldatu dira: idazteko era (*Oarso-Oartzu*) eta herri barruko leku bakoitza zer den (Santa Barbara auzoa, Santa Barbara bailara).

### “HERRIARI HITZA”

Gai honekin polemikarik ez duela nahi esanda, Rekondok “hitza herriari emateko” eskatu zuen, “hizkuntza biziaren alde bagaude, behintzat.” Bestalde, udalaren lana herri barrua antolatzea -zein den auzoa zein bailara-; ez Euskaltzaindiarena, EA-EAJ-ren ustez. Rekondok, arazo puntuak berriz aztertu eta erabakia batzar osoarena izatea eskatu zuen. EH-ren ustez, “aldaketa horiek komisiora joan eta han aurkeztu behar ziren.” □

### KALE ETA AUZO IZEN BERRIAK

AURREKO IZENA	IZEN BERRIA
Akarregi bailara	Akerregi bailara
Epele bailara	Epela bailara
Ereñotzu auzoa	Ereñotzu bailara
Gudarien Eparantza	Gudarien plaza
Latxunbe auzoa	Latsunbe kalea
Latxunbe-berri auzoa	Latsunberri auzoa
Mañe-Flaquer plaza	Mañe i Flaquer plaza
Marieluts	Marieluts auzoa
Martindegi auzoa.	Martindegi bailara
Oarso kalea	Oartzu kalea
Olaeta plaza	Oleta plaza
Onddi kalea	Oinddi kalea
Plaza-berri	Plaza Berria
Santa Barbara auzoa	Santa Barbara bailara
Sagera Felipa karkaba	Felipe Sagera ‘Zapa’ kalea

## KIROLAK

### IGERIKETA

#### Umeek Gipuzkoako Txapelketa

■ 11 urtetatik beherako umeak arituko dira Gipuzkoako Txapelketarako denbora minimoak lortzeko ahaleaginean. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da. Bestalde, Igeriketa Elkarteak urteko bazkaria du bihar udal jangelan.

### WATERPOLOA

#### Eskolarteko proba Easoren aurka

■ Waterpololari gazteek donostiarren kontra neurtuko ditu gaur bere abileziak, 18:30etan hasita. ■ Nagusiak lider dira Euskal Herriko Ligan. Asteburu honetan eta hurrengoan atsedenaldia dute.

### ERRUGBIA

#### Iruña - Hernani

■ Landarekoak hasten al dira espabilatzen! Azken postuan eta 2 punturekin ekingo diote Euskadiko Ligako bigarren bueltari. Hernaniarrak ondo ari omen dira jokatzeko, baina, ez dute entseguetan asmatzen. Iruñak 4 puntu ditu 6garren dago, zortzik. Gaurko partidua: 16:00etan, Iruñan. Nagusien B taldeak, berriz, Durangon ordu berean.

### PELOTA

#### Hernaniarrak final bila ‘paleta goma’ eta ‘pala motzean’

■ Gipuzkoako Txapelketako final bila arituko dira gaur herriko pelotariak. Paleta Goman, Hernani-Cucu; Hemengo taldeak: Lasa-Martinez eta Anoetakotik: Mendizabal-Zubeldia. Irabazten duena, finalean sartuko da. Lasa eta Martinez Mexiko munduko txapelkun izanak dira. *Pala motzean* Hernani-Zumarraga. Irabazlea, bigarren mailako finalea.

### 3. MAILAKO FUTBOL LIGA

#### Hernani liderraren kontra



Ea Hernaniko mutilak golerako bidean ez diren galtzen!

■ Lemoaren kontra jokatuko dute gaur zuriberdeek, Zubipen. Bizkaitarrek 31 puntu dituzte eta aurrena doazti. Hernaniarrak 13garrenak dira, 15 punturekin. Ea azkenengo 5-lari buelta ematen dioten! Partidua: 17:00etan. □



## Antziola-Motor Zerbitzu Ofiziala

- ▶ Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziaketak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu



Antziola auzoa 12 - HERNANI  
Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96

Aseguruak  CATALANA OCCIDENTE

Bezeroari atentzioa: 900 180 228  
Istripuak, urak eta kristalak: 902 206 208

**Bautista Biurrarena  
Etxegoien**

Kardaberaz 40 -Behea  
Tel. 943 33 24 40  
Faxe 943 556602  
Mobila 610 29 27 01  
20120 HERNANI

## Urrezko eztaiak



2000ko aben-

duaren 2an  
M. PILAR eta PEPE

Zuen seme-alaba, biloba, anai-arreba, iloba eta

## ■ ALFRED CERDAN (UPV-HERNANIKO ENTRENATZAILEA)

### “Boleibolak Hernanin, Irunen eskubaloia bezalako etorkizuna izango du”

■ Aurten kategoriaz igoko direla dio ■ Gaur Sestaon irabazteko irrikitan daude; 19:30etan ■ Jubenilak kiroldegian Sapiuherreren kontra; gaur, 18:30etan.



Alfred Cerdan. Hamaika hilabete daramazki dagoeneko taldean.

ALFRED Cerdan ez da edozein boleibolaren munduan. Argeliarra, baina urte mordo estatuan damazkiena. Real Madrid, Atletiko Madrid eta Espainiako selekzioko entrenatzaile izana, Hendaian bizi da orain; entrenatzeko goseak ekarri du Hernaniko taldera.

**ditu Hernaniko taldeak?**

ALFRED CERDAN: Aurten I maila nazionalera igo nahi dugu, eta oraingoz lider goaz. Horretarako presupuesto altuagoa behar dugu, ordea; baina, horrek ez nau bildurtzen.

**■ Zer da taldean hobetu beharrekoa.**

Badira gauza batzuek, tekni-

ka,... baina oso ekipo polita daukagu. Nik aplikatuak izaten erakutsi nahi diet, seriedadez entrenatu eta jokatzeko; ez daude ohituta eta kostatzen da.

**■ Hernanin zein etorkizun ikusten diozu Boleibolari.**

Eusebiok lan haundia egin du azken urteetan, eta hori nabaritu egiten da. Hogei jokalaria ditugu *I.Euskal Ligan* (bi taldeen artean), eta ia denak herrikoak. Boleibolak Hernanin Irunen eskubaloia duen etorkizuna izango du. Niri eskola uztea gustatuko litzaidake, biharko egunerako bertako entrenatzaile eta jokalarionak izateko; nire burua ez zait ajola, Kluba baizik.

**■ Eta gaurko partiduari zein etorkizun ikusten diozu.**

Partidu bakarra galdu dugu aurten, Sestaoko CV Antonio Truebaren kontra hain zuzen ere. Arantza txiki bat badugu barruan eta irriki biziz aterako gara bizkaitarrei bigarren partidu hau irabaztera. □

■ **KRONIKA:** Zein helburu

## 👉 JASOTA BEZALA

**IRUZURRA EUSKARAZKO MEZETAN.** Hernaniko eliza katolikoan gauza bitxiak gertatzen dira. Artzainak zenbait meza euskaraz egingo dela agintzen du, ordutegiak jarri ere, baina artalde euskalduna euskarazko

mezetara joaten denean, erdia baino gehiago gaztekeraz jan behar du. Hori ez da meza euskaraz, iruzurra galanta baizik. Gainera, Vatikanon II kontzilioan jarritako doktrinaren aurka doa. Manuel Odriozola da Herna-

niko eliza katolikoaren artzaina, eta hemen azaldukoari buruz, zerbait esan behar duela uste dut. Baita, iruzurra egitea pekatua denez, artaldeari barkamena eskatu eta noski, euskarazko mezak euskaraz eman.

**Josu Arrieta**

## ASTEBURUKO PARTIDUAK

**LARUNBATA**  
**■ FUTBOLA**  
 3. maila (Mutilak)  
 Zubipen 17:00etan  
**Hernani - Lemoa**  
*Gorengoen maila (Mutilak)*  
 Ondartzan 15:30etan.  
 Hondarribi-Hernani  
*Gazteen 2. Maila*  
 Elbarrenan 15:30etan.  
 Danena-Hernani  
*Kadeteen 2. Maila*  
 Zubipen 12:00etan.  
 Hernani - Idiazabal  
**■ ERRUGBIA**

*1. Liga Nazionala*  
 Iruñean 16:00etan.  
 Iruñea-Hernani  
*2. Euskal Liga*  
 Durangon 16:00etan.  
 Durango-Hernani  
*Jubenilen lagunartekoak*  
 Landaren 12:00etan.  
 Hernani-Ordizia RE  
*Kadeteak Gipuzkoako Liga*  
 Landaren 11:00etan.  
**■ BOLEIBOLA**  
*Euskadiko liga*  
 Sestaon 19:30etan  
**UPV Hernani-**  
 CV Antoni Trueba

*Euskadiko liga*  
 Durangon 18:30etan  
 Sapiuherreri - Hernani K.E.  
**■ PELOTA**  
 GIPUZKOAKO TXAPELKETA  
 Kiroldegian 16:15  
*Paleta Goma (finalaurrekoa):*  
 Lasa-Martinez, Cucu  
*Paleta Goma:*  
 Grijalbo-Manzidor, Aia  
*Kadeteak Eskuz Binaka*  
 Otegi-Leonet, Olalde  
*Pala Motza:*  
 Ugarrtxena-Galarza, Beloki  
**■ MAHAI TENISA**  
*Lehen Maila:*

Lasarten 16:30etan.  
 Lasarte Oria-Hernani  
**IGANDEA**  
**■ FUTBOLA**  
*Emakumezkoen Liga:*  
 Berion 18:45etan  
 Luberreri - Hernani  
*Gazteen liga nazionala:*  
 Zubipen 11:00etan.  
 Hernani - Zalla  
*Gazteen Ohorezko Liga*  
 Arizkorretan 11:00etan  
 Beasain-Hernani  
*Kadeteen Ohorezko Liga*  
 Zubipen 16:30etan  
 Hernani-Eibar  
*Haurren Ohorezko Liga*  
 Ibarren 11:30etan.  
 Aloña Mendi-Hernani  
**■ ESKUBALOIA**  
*2. Nazionala:*  
 Kiroldegian 12:00etan.  
 Hernani-Elgoibar

Skoda Fabia

FABIA bat 1.375.000 ptatik.\* (8.263,99 euro\*)

\* Penintsula eta Baleareteko gomendatutako prezioa. \*koda Fabia Classic 1.4 60 CV. Garrantzia berria eskaintza bereziko plan inklusiboa. Stockeko autoentzat baliogarria. 1 euro=166,386 ptak

**MENABI**  
 Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 4

**ADARRA**  
**ETXE TRESNAK S.A.**  
 Txirrita 11  
 Tel. 943 55 04 27  
 20120 HERNANI (Gipuzkoa)

## ■ HITZ BITAN



100 lagun inguru bildu ziren atzo goizeko kontzentrazioan.

✓ **AEK**

**Goizean kontzentrazioa eta arratsaldean manifestazioa.** 100 lagunetik gora bildu zituen atzo goizean AEK-k Garzonen erabakia gaitzesteko. Arratsaldean, berriz, 500 batek manifestazioa egin zuten. Juan Mari Larrartek hilaren 22an deklaratu du Madrilen. Bitartean, Hernaniko AEK-k mobilizazio eta ekitaldi berriak iragarri ditu.

✓ **TXANTXANGORRI ELKARTEA**

**Ehiza txapelketarako Juezak behar dira.** Horretarako gogoia duten gazteak lehenbailehen pasa elkartetik; bertan emango diete informazioa. Txapelketa hilaren 10 eta 17an jokatu da.

✓ **OLINPIADETAKO AFARIA**

**Atzo egin zuen 3/4 plataformako taldeak Zumardi jatetxean.** Afaria Hernaniko Olinpiadetako azken bazkarian zozketatu zen, parte hartzaile guztien artean.

✓ **JUDO**

**Txapelketa jokatu da gaur, Kiroldegian.** Arratsaldeko lauetan hasiko da lehenengo pistean.

✓ **KIROLDEGIA**

**Igerilekua jendearentzat itxita egongo da gaur arratsaldean.** Umeentzako igeriketa eta waterpolo lehiaketak izango dira arratsalde osoan. □

## HERIOTZAK

Marcelino Martinez Guapo  
 Ostegunean hil zen 69 urte zituela

Simona Juantorena Juanena  
 Ostiralean hil zen 74 urte zituela  
 Hileta elizkizunak gaur, larunbata, arratsaldeko zazpietan  
 Urnieta Mikel Goiangueraren Parrokian.

Salvador Lujanbio Zapirain  
 Ostegunean hil zen 60 urte zituela

Jesus Fernandez Borja  
 Azaroaren 26an hil zen 71 urte zituela  
 Hileta elizkizunak, gaur, zazpietan Juan Bataiatzailea Parrokian.

## AGENDA

❖ **ZINEA**

El profesor Chiflado II Biterin, 17:00-19:30-22:30

## ZERBITZUAK

☎ **TELEFONOAK**

▶ Taxiak: 943 550093  
 ▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
 ▶ DYA: 943 464622  
 ▶ Autobusak: 943 556662  
 ▶ Anbulatorioa: 943 557750

☏ **FARMAZIAK**

▶ Egunez: Irigoyen  
 Elcano, 2  
 ☎ 943 552087  
 ▶ Gauzez: Rodriguez  
 Lasarte. Nagusia, 42  
 ☎ 943 361774

**Nº 02.819 Zkia.**

GALERIAS BUEN PRECIO, AITOR PEÑA, ARETZE HARATEGIA, JAIONE KONJELATUAK, LIRAIN MODAK, NORDKAPP MODAK, IMAGE CENTER J.A.TORRES, LOHER MODAK

Autozerbitzua AITOR PEÑA

ARETZE HARATEGIA

JAIONE KONJELATUAK

**“Dendari hauek 20 Pztako partaidetza oparitzen dizue, 2000ko abenduaren 22an zozketatuko den Loterian.”**

Zuen konfidantza eskertzen dugu.  
**ZORTE ON !**